

# Aktuarioen II. Biltzar Iberikoa



## Informazio oharra I 2009/3/12

Aktuarioen II. Biltzar Iberikoa, honakoek antolatu dute: Colegio de Actuarios del Pais Vasco/Euskal Herriko Aktuarioen Elkargoa, Col.legi D´ Actuaris de Catalunya, Instituto de Actuarios Españoles eta Instituto dos Actuários Portugueses.

Biltzar honen helburu nagusia, hizkuntza iberikoetako aktuarioen ezaguerak eta esperientziak partekatzea da, arlo finantzarioari dagozkionak zein aktuarialekoak. Biltzar hau finantza eta aseguruetan interesa duten profesionalentzat ere zabalik dago.

Jarraian laburbilduta dator, Biltzar hau antolatzen ari garenon egitasmoa.

Biltzarra 2009ko ekainaren 11, 12 eta 13an izango da.

11ko goizean zehar, osoko bilkurak egingo dira, eta honako atal hauek izango dituzte:

- Irekitze-zeremonia.
- 1. osoko bilkura: lanbide aktuarialaren aukerak
- 2. osoko bilkura: Kaudimena II eta aktuarioaren eginkizuna.

11n arratsaldean eta 12an goizean bilkura paraleloak.

12an, prestakuntza aktuarialari eta nazioarteko mailan duen eginkizunari helduko dio arratsaldeko bilkurak.

13a gizarte-jarduerari emango zaio.

Bilkura paraleloetarako lokal desberdinak erabiliko dira eta, guztiek izango dituzte proiektio eta erabilera baliabide guztiak, besteak beste, Internetarako sarbidea.

Bilkura hauetan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi diegu etorriko diren guztiei, baita txostenak, oharak, esperientziak eta abar aurkeztuko dituztenei ere.

## Txostenen aurkezpenak gaia hauen arabera sailkatuko dira:

Finantza-arriskuen kudeaketa.

Arrisku aktuarialen kudeaketa.

Kaudimena.

Seguritate Soziala.

Bizitza eta Aurreikuspen-Planak.  
Mendekotasuna.  
Aurri-probabilitateak.  
Berraseguruak.  
Finantza eta aseguru produktu berriak.  
Aktuariotzarako laguntza-tresnak

### **Txostenen aurkezpena:**

Txostenen aurkezpenerako honako iradokizun hauek kontuan izan ditzazuela eskatu nahi dizuegu:

- Laburpenak/ abstracts aurkezpena: 2009/5/15 arte
- Onarpena: 2009/5/20 arte
- Artikulu osoa: 2009/5/30 arte

Txostenak behar bezala aurkeztuta eta onartuta daudenean, CDa argitaratuko da ISBN kodepean.

Hiru sari ematea aurreikusi da. Dirutan izango dira, Biltzarrean aurkeztutako hiru lan onenentzako, dagokien ziurtagiriaz.

**BATZORDE ANTOLATZAILEAK**